



4º Certamen coreográfico

IV. Lehiaketa koreografikoa

Ekainak 25, 26, 27 Junio 2019

Huarte-Uharte, Villava-Atarrabia, Sarriguren

1 3dance Jaialdia, dantza hiri-paisaia, **Uharte-Huarte, Villaba-Atarrabia eta Valle de Egües-Eguesibarko Udalek** sarean sortutako ekimena da,

Jaialdiaren antolatzaileek **3dance IV. Lehiaketa Koreografikorako** deialdia egiten dute, bi sari izango dituen, **1.000€**ko saria, epaimahaiak emango duena eta **500€**ko saria, publikoak emango duena. Sari hauei dagokien PFEZ erretentzia egokituko zaie.

Ikuskizun bakar batek ezin izango ditu bi sariak jaso, publikoaren sariak epaimahaiak emandakoarekin bat egingo balu, bozketan bigarren izandakoak jasoko luke publikoaren saria. Jaialdian parte hartzen duten artistek ezin izango dute botorik eman.

2 3dance Lehiaketa Koreografikoak hiri-espazioan dantza sustatu, sorkuntza koreografikoa bultzatu eta dantzarekiko publiko berriak eratzea ditu helburu.

3 Edozein artista edo taldek parte hartu dezake kaleko dantza ikuskizun bat aurkeztuz.

Ikuskizuna ezin da 15 minututik gora luzatu eta gutxienez 5 minutuko iraupena izatea gomendatzen da.

4 Jaialdiak 3 egun iraungo du: **2019ko ekainaren 25a asteartea, 26a asteazkena eta 27a osteguna**, 19ak eta 21ak bitartean, eta Uharte-Huarten, Villaba-Atarrabian eta Sarrigurenen (Valle de Egües-Eguesibar), izango da.

5 Interesa dutenek, **izen-emate formularioa** bete beharko dute ondorengo estekan:

<https://goo.gl/forms/slfCi4yv1luZPaEp1>

eta hortaz gain, hurrengo posta elektronikora bidali beharko dute dokumentazio osagarria (dosierak, argazkiak, edo ikuskizunari buruzko bestelako azalpenak): **festival3dance@gmail.com**, posta elektronikoaren gaien **Dokumentazioa + izen artistikoa** adieraziz.

Izen-ematearekin batera ikuskizunaren DVDa edo bideoa ikusteko estekak bidali beharko dira.

6 Izena emateko epea **2019ko maiatzaren 20an, astelehena** bukatuko da.

7 Udaletako kulturako arduradun teknikoek osatutako batzordeak erabakiko du zeintzuk diren parte hartuko duten ikuskizunak. Hautatutakoek bi emanaldi hitzartu beharko dituzte, bata finalerdian, asteartea 25 edo asteazkena 26an eta bigarrena, jaialdiaren finalean, ekainaren 27an.

8 Emanaldien ordena eta ordutegiaren zehaztapena antolatzaileen irizpideen arabera ezarriko dira.

9 Jaialdiaren epaimahaia osatuko dute: **Iñaki Fortún** (dantzari eta koreografoa eta Fuedeleje konpainiaren sortzailea), **Polini** (Team Rockers taldearen kide sortzailea, Floor in Flames txapelketaren antolatzailea eta 20 urtetik goraz Bboying-ari emana) eta **Elisa Arteta** (dantzaria eta Uharte Zentroko Zuzendaritza taldearen partidea).

Epaimahaiak aukeratuko du zein taldek hartuko duten parte finalean eta 1.000€ko saria emango du.

Epaimahaiak autonomia osoz jardungo du eta hartutako erabakia apelaezina izango da.

10 Artistek burutuko dituzte zama lanak eta muntaketa/desmuntaketa lanak. Antolatzaileek soinu ekipoa artisten eskura jarriko dute. Ikuskizuna eszenaratzeko beharrezkoak diren jantziak, atrezzoak, eta abar eta autore-eskubideen kudeaketa eta litekeen ordainketa, artisten erantzukizuna izango da. Antolatzaileek ez dute ez betetze hauen ardura hartuko.

11 Sariak, 2019ko ekainaren 27an emango dira, jaialdiari amaiera emanez.

12 Jaialdian izen-emateak oinarri hauen onespina dakar, antolatzaileek oinarri buruz egin dezaketen interpretazioaren onespina eta epaimahaiaren ebazpenaren onespina ere.

organizan / antolatzen dute

colabora / laguntzen du

gestiona / kudeatzen du + info +

